



# Mineralak Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**Mineralak**

**HIZTEGIA**



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜISTICA

**Eusko Jaurlitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
Bibliotekak sarearen katalogoa aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

## HITZAURREA

Argitaraldia:	I.a, 2017ko xxxxx
Ale-kopurua:	1.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzalea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	<a href="http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm">www.euskara.euskadi.eus/euskalterm</a>
Azala:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
ISBN:	XXXXXXXXXXXXXX
Lege gordailua:	XXXXXXXXXX

**B**este edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbesteko da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintza eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutako da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan [www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko



Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearren bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 29a

**MIREN DOBARAN URRUTIA**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

#### HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzairekin (HPS) izenpetutako kontratuengandik barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPek finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenek bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengo, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminología**.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koan, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa



## Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:

- (4) Termino normalizatua / gomendatua
- (3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

## NORMALIZAZIOA

### Hiztegian erabilitako laburtzapenak:

eu euskara  
es español  
fr français  
en english

Sin. sinonimoa  
Ik. ikus

### BATZORDE TEKNIKOAK

**Gorka Arana** (Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko teknikaria)  
**Miren Mendiola** (EHUko irakaslea)  
**Arantxa Bodego** (EHUko irakaslea)  
**Begoña Arrate** (UZEI)  
Koordinatzailea: **Jone Agirrekoiko** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

### TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Patxi Bartzarrika Galparsoro**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria  
**Eneko Oregi Goñi**, IVAPEko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea  
**Jorge Giménez Bech**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria  
**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria  
**Maite Imaz Leunda**, IVAPEko ordezkaria  
**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria  
**Iker Etxeberria Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuaren Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria  
**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria  
**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria  
**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua  
**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua  
**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua  
**Miel Loinaz Beristain**, aditua  
**Alberto Atxabal Rada**, aditua  
**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua



## EREMU - ZUHAITZA

- 1** **Termino orokorrak**
- 2** **Mineral-motak**
  - 2.1 Elementuak
  - 2.2 Sulfuroak
  - 2.3 Haluroak
  - 2.4 Oxidoak eta hidroxidoak
  - 2.5 Karbonatoak eta nitratoak
  - 2.6 Boratoak
  - 2.7 Sulfatoak
  - 2.8 Fosfatoak
  - 2.9 Silikatoak
  - 2.10 Konposatu organikoak

## AURKIBIDEA

<b>Bokabularioa sailka</b> .....	13
1. TERMINO OROKORRAK .....	14
2. MINERAL-MOTAK .....	21
2.1. Elementuak .....	21
2.2. Sulfuroak .....	22
2.3. Haluroak .....	25
2.4. Oxidoak eta hidroxidoak .....	26
2.5. Karbonatoak eta nitratoak .....	31
2.6. Boratoak .....	34
2.7. Sulfatoak .....	34
2.8. Fosfatoak .....	36
2.9. Silikatoak .....	37
2.10. Konposatu organikoak .....	50
<b>Euskarazko aurkibidea</b> .....	51
<b>Gaztelaniazko aurkibidea</b> .....	57
<b>Frantsesezko aurkibidea</b> .....	63
<b>Ingelesezko aurkibidea</b> .....	71
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b> .....	79



## BOKABULARIOA SAILKA





## I. TERMINO OROKORRAK

1

**agregatu (iz.) (4)**

Elkarren ondoan hazten diren kristalen multzoa. Hainbat motatako agregatuak bereizten dira, funtsean kristalen multzoak hartzen duen tamainen eta banaketaren arabera: pikotsua, zuntsua, erradiatua, zutabe-formakoa eta abar.

**es** agregado cristalino

**fr** agrégat

**en** aggregate

2

**alokromatiko (4)**

**es** alocromático  
**fr** allochromatique  
**en** allochromatic

**anhedral**

Ik. xenomorfo

**anhedriko**

Ik. xenomorfo

3

**apurketa (4)**

Mineral batzuek klibatu ordez norabide kristalografikoei jarraitu gabe hausteko duten joera. Apurketa-mota desberdinek formaren araberako izenak hartzet dituzte; adibidez, kuartoaren apurketari konkoide esaten zaio maskor baten barnealdearen itxura duelako.

**es** fractura

**fr** cassure; fracture

**en** fracture

4

**asterismo (4)**

Kristal batzuek erakusten duten fenomeno optikoa, ardatz nagusiarekiko zut ebakiz gero sei besoko izar argi zurixka ikustean datzana.

**es** asterismo; efecto estrella

**fr** astérisme; effet d'étoile

**en** asterism; star effect

5

**dentsitate (4)**

Mineralek bolumen-unitateko duten masa,  $\text{g}/\text{cm}^3$ -tan adierazi ohi dena. Mineralen atomo-moten eta atomo horiek kristal-sarean banatuta dauden moduaren araberakoa da.

**es** densidad

**fr** densité

**en** density

6

**distira (4)**

Mineral batek argia islatzen duen moduaren araberakoa hartzet duen itxura. Distiraren intentsitatea islatutako argianititatearen araberakoa da hein handi batean, eta handiagoa izaten da errefrakzio-indizea zenbat eta altuagoa izan. Distira metalikoa edo ez-metalikoa izaten da funtsean, eta kasu gutxi batzuetan, submetalikoa. Distira metalikoa mineral opakuen berezko ezaugarria da, eta bereziki ohikoa izaten da metal, sulfuro eta oxido batzuetan. Distira ez-metalikoa argia transmititzen duten mineraletan ikusten da. Mota ezberdinak daude; adibidez, beirakara (feldespatoen taldeko mineraletan) edo diamantekara (diamantearen distiraren antzekoa).

**es** brillo

**fr** brillance; éclat

**en** brilliance; brillancy; luster

**egitura kristalino**

Ik. kristal-egitura

**eite**

Ik. kristal-forma

7

**errefringentzia (4)**

Argiak edo bestelako erradiazio elektromagnetikoak zeharkatzen duenean errefrakzioa sortzen duen material, substantzia edo objektu baten ezaugarria. Izpi erasotzaile bakoitzeko izpi errefraktatu bat (monorrefringentzia) edo bi (birrefringentzia) sor daitezke.

**es** refringencia

**fr** réfringence

**en** refraction

**esfoliazio**

Ik. klibaje

**euhedral**

Ik. idiomorfo  
forma kristalino

Ik. kristal-forma

8

**gogortasun (4)**

Mineral baten azala marratzeko garaian mineralak agertzen duen erresistentzia adierazten duen propietatea. Mineral bakoitzak gogortasun bera du beti, baina zenbaitetan gerta daiteke mineralak norabide desberdinaren gogortasun desberdina izatea, hau da, mineralaren gogortasuna anisotropoa izatea. Ezaugarri hori bereziki nabarmena da zianitaren kasuan. Atomoen arteko lotura-motaren eta atomoen tamaina eta balentziaren araberakoa da gogortasuna; beraz, osagai kimikoek kristal-egituraren duten kohesio-maila adierazten du. Mineralen gogortasuna neurtzeko, Mohsen eskala

erabiltzen da, gogortasun (H) txikienetik handienera ordenatutako hamar mineralek osatua: talkoa (H = 1), igeltsua (H = 2), kaltzita (H = 3), fluorita (H = 4), apatitoa (H = 5), ortoklasa (H = 6), kuartzoa (H = 7), topazioa (H = 8), korindoia (H = 9) eta diamantea (H = 10).

**es** dureza

**fr** dureté

**en** hardness

9

**habitu (4)**

Kristal edo mineral batek bere aurpegien garapen erlatiboaren arabera hartzet duen forma orokorra. Mineral-habituak hainbat motatakoak izan daitezke; besteak beste, prismatikoa, tabularra, laminarra, haritsua, orratz-formakoa, dimentsiokidea eta abar.

**es** hábito

**fr** habitus

**en** habit

10

**hipidiomorfo (4)**

Sin. subhedral (4)  
**es** hipidiomorfo; subhedral  
**fr** subhédrique  
**en** subhedral

11

**idiokromatiko (4)**

**es** idiocromático  
**fr** idiochromatique  
**en** idiochromatic

12

**idiomorfo (4)**

Sin. euhedral (4)  
**es** idiomorfo; euhedral  
**fr** idiomorphe; idiomorphique;  
euhédrique  
**en** idiomorphic; euhedral



13

**isomorfismo (4)**

Zenbait mineralek, antzeko konposizio kimikoa izanik, kristal-egitura bera izateko duten propietatea. Mineral isomorfoek antzeko hainbat propietate izaten dituzte; esate baterako, simetria eta klibajea. Kaltzita, siderita, smithsonita eta errodokrosita, guztiak kaltzitaren taldeko mineralak, isomorfoak dira, adibidez.

**es** isomorfismo  
**fr** isomorphisme  
**en** isomorphism

14

**klibaje (4)**

Sin. esfoliazio (4)

Zenbait mineralek lehentasuneko plano kristalografikoan apurtzeko duten joera. Lotura atomiko ahulenek definitzen dituzte plano horiek. Mineral batek klibajea izan dezake ala ez. Klibaje perfektua, ona, nabarmena, ahula eta txarra bereizten dira, klibaje-maila handienetik txikienera ordenatuta.

**es** exfoliación  
**fr** exfoliation; clivage  
**en** cleavage

15

**kolore (4)**

Mineralen propietatea, minerala zeharkatzen duen argiaren errefrakzioko eta dispersioak, batetik, eta mineralak argia xurgatzen duen moduak, bestetik, erabakitzenten dutena. Mineralen kolorea berezkoa eta nahiko konstantea izan daiteke (mineral idiomorfikoa), edo gerta daiteke mineralak, berez koloregia izanik, koloreren bat hartzea, kristal-sarean sartu diren ezpurutasunen, egitura atomikoaren distorsioen eta abarren ondorioz (mineral alokromatikoa).

**es** color  
**fr** couleur  
**en** color

16

16

**criptokristalino (4)**

**es** criptocristalino  
**fr** cryptocristallin  
**en** cryptocrystalline

17

**kristal (4)**

Solido homogeneo ordenatua, plano-aurregi garatuak eta konposizio kimiko zehatzak dituena. Konposatu kimikoaren atomoak espazioko hiru dimentsioetan periodikoki errepikatzen den eredu baten arabera antolatzen direnez, kristalek geometria definituak izaten dituzte.

**es** cristal  
**fr** cristal  
**en** crystal

18

**kristal-egitura (4)**

Sin. egitura kristalino (4)

Kristal bat osatzen duten atomo edo molekulen banaketa espazial ordenatua.

**es** estructura cristalina  
**fr** structure cristalline  
**en** crystal structure; crystalline structure

19

**kristal-forma (4)**

Sin. forma kristalino (4); eite (3) Simetria-elementuen bidez baliokideak diren kristal baten aurpegin multzoa, forma geometriko jakina definitzen duena. Kristal-formak irekiak izan daitezke (adibidez, prisma) edo itxiak (adibidez, kubo). Kristal-forma jakin bat adierazteko, Miller indizeak giltza artean idazten dira; adibidez, kubo bat {100} gisa adierazten da.

**es** forma cristalina  
**fr** forme; forme cristalline  
**en** form; crystal form

20

**kristal-klase (4)**

**es** clase cristalina  
**fr** classe cristalline  
**en** crystal class

21

**kristal-sare (4)**

Sin. sare kristalino (4)

Kristalen atomoen kokapen erregularra erakusten duen hiru dimentsioko egitura erregularra. Kristalaren aurpegi posible bakarrak unitate-gelaxken puntuak osatzen dituzten planoak dira, sare-planoak. Horregatik izaten ditu mineral-mota bakoitzak aurpegien orientazio jakinak, eta, beraz, aurpegien arteko angelu zehatzak.

**es** red cristalina  
**fr** réseau cristallin; maille cristalline  
**en** lattice; crystal lattice

22

**kristal-sistema (4)**

Kristalak ardatz kristalografikoan arabera sailkatuz bereizten diren zazpi taldeetako bakoitzta. Hauek dira kristal-sistemak: kubikoa, tetragonal, hexagonal, trigonal, ortorrónbikoa, monoklinikoa eta triklinikoa. Kristal-sistema bakoitzaren barnean kristal-klase desberdinak bereizten dira.

**es** sistema cristalino  
**fr** système cristallin  
**en** crystal system

23

**lumineszentzia (4)**

Kristal batzuek kitzikapen fisikoeng eraginez argia igortzeko duten gaitasuna. Fenomenoak ez du zerikusirik goritasunarekin, eta iluntasunean bakarrik nabarmenzen da. Kitzikapen-eragilearen arabera, mota desberdinak bereizten dira: tribolumineszentzia (jo, kolpekatu, birrindu edo igurtziz),

termolumineszentzia (beroaren ondorioz), fluoreszentzia eta fosorescentzia (normalean, biak erradiazo ultramoreen eraginez).

**es** luminiscencia  
**fr** luminescence  
**en** luminescence

24

**makla (4)**

Mineral beraren bi kristal-segmentu edo gehiago elkarrekin simetrikoki hazten direnean sortutako kristal-multzoa. Maklako bi kristalen orientazioak elkarrekin erlazionatzen dituen simetria-eragiketari makla-lege deritzo. Makla-legeak makla-planoak eta makla-ardatzak zehaztuz adierazten dira. Kaltzita, aragonitoa, fluorita, espinela, errutiloa, kuartzoa eta feldespatoa, besteak beste, maklak osatuz agertu ohi dira.

**es** macla  
**fr** macle  
**en** twin

25

**makla-ardatz (4)**

Makla osatzen duten bi kristalak erlazionatzen dituen ardatza. Kristaletako bat makla-ardatzaren inguruan 180° biratzen bada, beste kristalaren orientazio bera erakusten du.

**es** eje de macla  
**fr** axe de macle  
**en** twin axis; twinning axis

26

**makla-plano (4)**

Makla osatzen duten bi kristalak islapen bidez erlazionatzen dituen planoa.

**es** plano de macla  
**fr** plan de macle  
**en** twin plane; twinning plane





## MINERALAK

27

### **marra** (4)

Mineral-hautsaren kolorea. Beiraztatu gabeko portzelanazko xafla bat mineralarekin igurtziz ezagutzen da. Kolorea bera baino propietate fidagarriagoa izan ohi da, zenbaitetan kolorea alterazio-geruza baten azpian egoten baita.

**es** raya

**fr** trace; trait

**en** streak

28

### **mea** (4)

**es** mena

**fr** minerai

**en** ore

29

### **metakin** (4)

Prozesu sedimentarioen edo bolkanikoien ondorioz pilatutako material-multzoa.

**es** depósito

**fr** dépôt

**en** deposit

30

### **mineral** (4)

Material solido ez-organikoa, naturala, barne-egitura ordenatua (kristalinoa) eta konposizio kimiko nahitaez finkoa dituena.

**es** mineral

**fr** minéral

**en** mineral

31

### **mineral primario** (4)

Arrokarekin batera sortu den eta ordutik forma- zein konposizio- aldakarik izan ez duen minerala.

**es** mineral primario

**fr** minéral primaire

**en** primary mineral

32

### **mineral sekundario** (4)

Mineral primario batek jasandako aldaketaren ondorioz sortu den minerala.

**es** mineral secundario

**fr** mineral secondaire

**en** secondary mineral

33

### **mineral supergeniko** (4)

Lurrazen azaletik gertu, bertan kokatutako mineral batzuetatik abiatuta, meteorizazio bidez sortutako minerala; nagusiki, soluzio urretsuen zirkulazioaren ondorioz sortu ohi da.

**es** mineral supergénico

**fr** minéral supergène

**en** supergene mineral

34

### **mineraloide** (4)

Mineral-portaera izan arren, minerala izateko baldintza guztiak betetzen ez dituen material naturala. Gehienetan egitura amorfoa izatea da mineralatzat ez hartzeko arrazoia (adibidez, obsidiana, opaloa eta anbara). Baina, egitura kristalinoa duen arren, diamante sintetikoa ere mineraloidez hartzenda, jatorri naturalekoa ez denez.

**es** mineraloide

**fr** minéraloid

**en** mineraloid

35

### **piezoelektrizitate** (4)

Kristal bat presiopean jartzen denean bere muturren edo poloien artean potentzial elektrikoa sortzean datzan fenomenoa.

**es** piezoelectricidad

**fr** piézoélectricité

**en** piezoelectricity

36

### **piroelektrizitate** (4)

Kristal bat beroaren eraginpean jartzen denean bere muturren edo poloien artean potentzial elektrikoa sortzean datzan fenomenoa.

**es** piroelectricidad

**fr** pyroélectricité

**en** pyroelectricity

37

### **pisu espezifiko** (4)

Mineral baten pisuaren eta 4 °C-an bolumen berdina duen uraren pisuaren arteko erlazioa. Zenbaki baten bidez adierazten da, eta ez du unitaterik.

**es** peso específico

**fr** poids spécifique

**en** specific gravity; relative density

38

### **polimorfismo** (4)

Zenbait substantziak konposizio kimiko berarekin kristal-egitura desberdinak izateko duten propietatea. Adibidez, diamantea eta grafitoa, karbonoaren polimorfoak biak, eta kaltzita eta aragonita, kaltzio karbonatoaren polimorfoak.

**es** polimorfismo

**fr** polymorphisme

**en** polymorphism

39

### **politipismo** (4)

Mineral batek bere egituraren atal berdinak modu desberdinetan multzokatuz forma desberdinetan kristalatzeko duen gaitasuna.

Filosilikatoetan, ugariak dira politipoak (miken taldeko mineraletan, adibidez), haien osatzen dituzten geruza uniformeak modu desberdinetan multzokatu baitaitezke.

**es** politipismo

**fr** polytypisme

**en** polytypism

40

### **pseudokromatiko** (4)

**es** pseudocromático

**fr** pseudochromatique

**en** pseudochromatic

41

### **pseudomorfismo** (4)

Baldintza fisiko-kimikoen aldaketek eraginda mineral bat desegonkortu eta, hasierako forma mantenduz, beste mineral batek ordezteko prozesua.

Hasierako mineralaren osagaia berrantolatuz gerta daiteke (ragonito-formako kaltzita-pseudomorfoa, adibidez), edo konposizio kimikoa guztiz aldatuz (ragonito-formako kobre natiboaren pseudomorfoak, esate baterako).

**es** pseudomorfismo; seudomorfismo

**fr** pseudomorphisme

**en** pseudomorphism

42

### **pseudomorfo** (iz.) (4)

Beste mineral baten kristal-forman agertzen den minerala.

**es** pseudomorfo

**fr** pseudomorphe

**en** pseudomorph

### **sare kristalino**

Ik. kristal-sare

43

### **sartze-makla** (4)

Kristalak bata bestean txertatuak dituen makla.

**es** macla de compenetración

**fr** macle d'interpénétration; macle par interpénétration

**en** interpenetration twin;

penetration twin



44

**simetria-elementu (4)**

Kristal baten simetria irudikatzea ahalbidetzen duen egitura geometrikoa. Simetria-zentroa, simetria-planoa eta simetria-ardatza simetria-elementuak dira.

**es** elemento de simetría  
**fr** élément de symétrie  
**en** symmetry element

45

**simetria-eragiketa (4)**

Simetria-elementu jakin batek adierazten duen ekintza (biraketa edo islapena, bestea beste).

**es** operación de simetría  
**fr** opération de symétrie  
**en** symmetry operation

**subhedral**

Ik. hipidiomorfo

46

**unitate-gelaxka (4)**

Kristal-sarean defini daitekeen paralelepipedorik txikiena. Kristal-sarearen simetria-ezaugarri guztiak barnean hartzen ditu, eta kristalen morfologia deskribatzeko oinarri gisa erabiltzen da. Unitate-gelaxka baten dimentsioak hiru ertzen luzeren eta ertz horien arteko angeluen bidez adierazten dira.

**es** celda unidad; celda unitaria  
**fr** maille élémentaire  
**en** unit cell

47

**xenomorfo (4)**

Sin. anhedral (4); anhedrilo (4)  
**es** xenomorfo; anhedral; anhédrico  
**fr** xénomorphe; anhédral;  
anhédrique; anédrique  
**en** xenomorphic; anhedral

48

**zatidura (4)**

Mineral batzuek beren kristal-egiturako plano ahulen arabera hausteko duten joera. Plano horiek ez dira klibaje-planoak, eta ez dute mineral bereko ale guztieta agertu behar. Adibidez, korindoia makla-planoen arabera zatitzeko joera du.

**es** partición  
**fr** partage; fente  
**en** parting

## 2. MINERAL-MOTAK

### 2.1. Elementuak

**Ag**

Ik. zilar

**Au**

Ik. urre

**49****burdina (4)**

Sin. Fe (4)  
**es** hierro  
**fr** fer  
**en** iron

**Cu**

Ik. kobre

**50****diamante (4)**

Karbono (C) puruzko elementu natiboa, sistema kubikoan kristaldua. Dagoen mineralik gogorrena da (Mohs-en gogortasun-eskalako baliorik altuena dagokio, 10). Kolore argia izaten du gehienetan, distira berezia du, izpi katodikoen eraginpean lumineszentzia-eta fosforentzia-fenomenoak sortzen ditu, eta azidoek ez diote erasotzen. Kimberlita izeneko arroketan eta oso sakonera handian sortutako peridotita eta eklogitetan sakabanatuta egoten da, edo diamanteak barnean hartzen dituzten arroken higaduraren ondorioz sortutako metakin sekundarioetan.  
**es** diamante  
**fr** diamant  
**en** diamond

**51****elementu natibo (4)**

Naturan gainerako elementuekin konbinatu gabe ageri den elementu kimiko solido zein likidoa. Elementu natiboen hiru talde daude: metalak, erdi-metalak eta ez-metalak.

**es** elemento nativo  
**fr** élément natif  
**en** native element

**Fe**

Ik. burdina

**52****grafito (4)**

Karbono (C) puruzko elementu natiboa, sistema hexagonalen kristaldua. Gris kolore iluna du, eta egonkorra da lurrazalean. Biguna da, eta kristal-egituran karbonoz osatutako xaflak bereizten direlako klibatzen da hain erraz.

**es** grafito  
**fr** graphite  
**en** graphite

**53****kobre (4)**

Sin. Cu (4)  
**es** cobre  
**fr** cuivre  
**en** copper

**S**

Ik. sufre



54

**sufre (4)**

Sin. S (4)

Elementu natiboen eta ez-metalen azpitaldeko minerala. Kristal ortorrónbikoak osatzen ditu, sufre-hori kolorekoak, nahiz eta batzuetan, ezpurutasunak direla-eta, kolore horixka, berdexka edo arrexka har dezakeen. Eskualde bolkanikoetan agertzen da. Sufre-metakinik handienak halita, anhidrita eta igeltsuaren sedimentu ebaporitikoetan egoten dira. Hainbat aplikazio ditu; esate baterako, azido sulfurikoa, intsektizidak, fungizidak, ongarriak, pospoloak eta abar ekoizteko eta kautxua bulkanizatzeko erabiltzen da. Paperaren eta petrolioaren industrian ere erabiltzen da, besteak beste.

**es** azufre**fr** soufre**en** sulfur; sulphur

55

**urre (4)**

Sin. Au (4)

**es** oro**fr** or**en** gold

56

**zilar (4)**

Sin. Ag (4)

**es** plata**fr** argent**en** silver

61

**errealgar (4)****es** rejalar**fr** réalgar**en** realgar

62

**esfalerita (4)**

Sin. blenda (3)

Zink sulfuroa ( $ZnS$ ), sistema kubikoan kristaldua. Horia, marroia, gorria edo beltza izan daiteke. Galenarekin batera agertu ohi da, baita zain hidrotermaletan ere, magnetita, pirit, pirrotina eta bestelako sulfuroekin batera. Zink-mea garrantzitsuena da.

**es** esfalerita; blenda**fr** sphalerite; blende**en** sphalerite; blende; zinc blende

63

**estibina (4)**

Sin. antimonita (3)

Antimonio sulfuroa ( $Sb_2S_3$ ), sistema ortorrónbikoan kristaldua. Berun-gris koloreko da, eta distira metaliko nahiko bizia izaten du klibaje-gainazal klibatu berriean. Temperatura baxuko zain hidrotermaletan, ordezte-hobietan eta iturri termaletan ageri da, erreagarrar, orpimentea, galena, pirit, barita, kuartzoa eta kaltzitarekin batera. Antimonio-mea garrantzitsuena da, nahiz eta antimonio gehiena berunaren meatzaritzan azpiproductu gisa lortzen den.

**es** estibina; antimonita**fr** stibine; antimonite**en** stibnite; antimonite

64

**galena (4)**

Sistema kubikoan kristaltzen den berun sulfuroa ( $PbS$ ). Berun-gris kolorekoa da, eta distira metaliko bizia du klibaje-aurpegieta. Arrunta da, eta zain hidrotermaletan agertzen da, ohiko beste sulfuro batzuekin batera; besteak beste, esfalerita, pirit, kalkopirita, kuartzoa, barita, fluorita eta kaltzitarekin. Berun-mea garrantzitsuena da. Akantitazko inklusio txikiak izan ditzake eta kasu horietan zilar-mea ere izan daiteke.

**es** galena**fr** galène**en** galena

65

**kalkopirita (4)**

Sulfuroen taldeko minerala ( $CuFeS_2$ ), sistema tetragonalen kristaldua. Letoi-horia izan ohi da, berde-ukitut batekin. Askotan, arroka basiko, eruptibo, hidrotermal edo metamorfikoekin batera agertzen da. Esfaleritarekin batera agertzen da maiz, biek antzeko kristal-egitura baitute. Piritatik bereizteko, hautsaren koloreari begiratzen zaio (gris berdexka izaten da kalkopiritaren kasuan, eta grisa piritarenean), baita gogortasunari ere (kalkopirita bigunagoa da). Kobre-mea garrantzitsuena da.

**es** calcopirita**fr** chalcopyrite**en** chalcopyrite**2.2. Sulfuroak**

57

**akantita (4)**

Sin. argentita (3)

**es** acantita; argentita**fr** acanthite; argentite**en** acanthite; argentite**antimonita**

Ik. estibina

**argentita**

Ik. akantita

58

**artsenopirita (4)**

Sin. mispikel (3)

**es** arsenopirita; mispikel**fr** arsénopyrite; mispikel**en** arsenopyrite; mispikel**blenda**

Ik. esfalerita

59

**bornita (4)****es** bornita**fr** bornite; érubescite**en** bornite**covellina**

Ik. covellita

60

**covellita (4)**

Sin. covellina (3)

**es** covellita**fr** covellite**en** covelline; covellite



## MINERALAK

66

### kalkosina (4)

Sin. kalkozita (4)  
Sistema monoklinikoan, pseudoortorronbikoan edo hexagonalen kristaltzen den kobre sulfuroa ( $\text{Cu}_2\text{S}$ ). Gris iluna edo beltza izaten da, irideszentea eta biguna. Eskualde idorretan kobre-metakinenean zementazio-alderdian sortzen da, azaletik gertu kokatutako mineralak uretan disolbatu eta infiltrazio-uraren bidez bertaraino iristea ondorioz; hau da, kalkosina kobre-metakinetako mineral supergeniko gisa agertzen da. Zain hidrotermaletako mineral primario gisa ere agertzen da, bornita, kalkopirita eta piritarekin batera. Kobre-mea da.

**es** calcocita; calcosina  
**fr** chalcocite; chalcosine  
**en** chalcocite

### kalkozita

Ik. kalkosina

67

### markasita (4)

**es** marcasita  
**fr** marcassite; marcasite  
**en** marcasite

### mispikel

Ik. artsenopirita

68

### molibdenita (4)

**es** molibdenita  
**fr** molybdénite  
**en** molybdenite

69

### orpimente (4)

**es** oropimente  
**fr** orpiment  
**en** orpiment

70

### pirita (4)

Burdin sulfuroa ( $\text{FeS}_2$ ), sistema kubikoan kristaldua, markasitaren polimorfoa. Urre-kolore horia du, distira metalikoa eta aurpegiak ildaskatuak. Hauskorra da. Oso ezaguna da sulfurik arruntena delako eta edozein motatako arroketa aurki daitekeelako. Kolpekatuz gero, txinpartak igortzen dituelako du pirita izena, pyritesez su esan nahi baitu grekoz. Azido sulfurikoa, sulfura eta burdina lortzeko erabiltzen da.

**es** pirita  
**fr** pyrite; pyrite de fer  
**en** pyrite; iron pyrite

71

### pirrotita (4)

**es** pirrotita; pirrotina  
**fr** pyrrhotite; pyrrhotine  
**en** pyrrhotite

72

### sulfogatz (4)

Sulfuroak ez diren mineral sufredun ez-oxidatuen taldea. Zilar, kobre edo berunezko mineralak izan ohi dira, eta zain hidrotermaletan kantitate txikitan agertzen dira, normalean sulfuro ohikoengkin batera.

**es** sulfosal  
**fr** sulfosel  
**en** sulphosalt

73

### sulfuro (4)

Sufreak eta metal batek osatutako konposatuenean klasea. Sulfuroen taldeak barnean hartzen ditu metal-mea garrantzitsuenak. Talde honetako mineralak dira, besteak beste, esfalerita ( $\text{ZnS}$ ), galena ( $\text{PbS}$ ) eta pirita ( $\text{FeS}$ ). Distira metalikoa izan ohi dute.

**es** sulfuro  
**fr** sulfure  
**en** sulphide

74

### tetraedrita (4)

**es** tetraedrita  
**fr** tétraédrite  
**en** tetrahedrite

75

### zinabrio (4)

Merkurio sulfuroa ( $\text{HgS}$ ), kolore gorri bizikoa, sistema trigonalean kristaldua. Lurralde igneoekin erlazionatutako hobi hidrotermaletan agertu ohi da; batzuetan, arrakalak edo bestelako hutsuneak betetzen ditu, normalean pirita, antimonita, kuartzoa, kaltzedonia, kaltzita eta beste karbonato batzuekin batera. Merkurio-mearik garrantzitsuena da.

**es** cinabrio  
**fr** cinabre  
**en** cinnabar

## 2.3. Haluroak

76

### fluorita (4)

Sistema kubikoan kristaltzen den kaltzio fluoruroa ( $\text{CaF}_2$ ). Fluoreszentea da argi ultramoreean, eta hainbat koloretakoa izan daiteke aldaeraren arabera (kolorgea, zuria, horixka, berdea, morea, urdina, arrosa). Ohikoa da zain hidrotermaletan; eta kareharrietako barrunbe eta arrailduretan, granitoetan eta pegmatitetan ere agertu ohi da. Erabilera ugari ditu: metalurgian urgari gisa, zeramikaren industrian, beiragintzan, optikaren esparruan eta fluorraren konposatuak lortzeko (freona, esate baterako). Sartze-maklak sortu ohi ditu.

**es** fluorita  
**fr** fluorite; fluorine  
**en** fluorite

### gatzarri

Ik. halita

77

### halita (4)

Sin. gatzarri (4)  
Sodio kloruroa ( $\text{NaCl}$ ), sistema kubikoan kristaldua. Gazia da, eta erraz disolbatzen da uretan. Normalean, kolorgea izaten da, baina, ezpurutasunak direla eta, gorria, morea edo beltza izan daiteke. Oso banatuta agertzen da, eta ebaporitetako mineral garrantzitsuena da. Halita elikaduran erabiltzen da janari-gehigarri eta funtsezko osagai gisa, eta hainbat industriatako lehengaia da (adibidez, industria kimikoan erabiltzen da, kloroa eta sodioa lortzeko eta azido klorhidrikoa, soda kaustikoa eta sodioaren eta kloroaren bestelako konposatuak ekoizteko).

**es** halita  
**fr** halite  
**en** halite



78

**haluro (4)**

Metalak eta fluor-, kloro-, bromo- edo iodo-anioiak konbinatuz sortutako mineralen klasea. Mineral hauek kubikoak eta bigunak izan ohi dira. Kloruroak disoluzioak lurruntzearen ondorioz sortzen dira gehienetan, eta fluoruroak arroka igneoetan eta horiekin batera agertzen diren pegmatita eta zain hidrotermaletan egoten dira.

**es** haluro**fr** halogénure**en** halide

## 2.4. Oidoak eta hidroidoak

80

**bauxita (4)**

Hiru aluminio hidroxidoren nahastea, nagusiki gibbsitarena, diasporarena eta boehmitarena. Burdina-, fosforo- eta titanio-ezpurutasunak izan ohi ditu. Bauxita klima tropikalaren eraginpean sortzen da aluminio silikatozko arroken meteorizazioz, eta prozesu horretan sortutako buztin mineralek silizioa galtzen dute ondoren. Aluminio-mea nagusia da.

**es** bauxita**fr** bauxite**en** bauxite

81

**boehmita (4)****es** boehmita**fr** boehmite**en** boehmite

82

**bruzita (4)****es** brucita**fr** brucite**en** brucite**silbina**

Ik. silbita

79

**silbita (4)**

Sin. silbina (3)

**es** silvita; silvina  
**fr** sylvite; sylvine  
**en** sylvite

83

**diaspora (4)****es** diásporo  
**fr** diaspose  
**en** diaspose

84

**errubi (4)****es** rubí  
**fr** rubis  
**en** ruby

85

**errutilo (4)****es** rutilo  
**fr** rutile  
**en** rutile

86

**esmeril (4)**

Korindoairen eta magnetita edo hematitearen ale fineko nahastea. Beltzaxka da burdin oxidoak dituelako, eta haren hautsa urratzaile gisa erabiltzen da.

**es** esmeril  
**fr** émeri  
**en** emery

87

**espinela (4)****es** espinela  
**fr** spinelle  
**en** spinel

88

**gibbsita (4)**

Sistema monoklinikoan kristaltzen den aluminio hidroxidoa  $[Al(OH)_3]$ . Agregatu erradiatuetan, estalaktiformakoetan eta inkrustazioetan ager daiteke, baita agregatu lurkarenan ere. Bauxitaren osagai nagusia da, boehmita eta diasporarekin batera.

**es** gibbsita  
**fr** gibbsite  
**en** gibbsite

89

**goethita (4)**

Sistema ortorrónbikoan kristaltzen den burdin oxi-hidroxidoa  $[FeO(OH)]$ . Arre iluna, arre horixka edo arre gorrixka izan daiteke. Distira diamantekara eta submetaliko artekoa izan dezake. Kristalak orratz- edo ile-formakoak izaten dira, eta luzetara oso ildaskatuta egoten dira. Askotan habitu botroidala erakusten du. Hainbat motatako masak osa ditzake; besteak beste, giltzurrun- zein estalaktiformakoak. Lateritaren oinarrizko osagaia da. Burdinaren beste mineral batzuen alterazioz sortzen da baldintza oxidatzaleetan, eta burdin mea garrantzitsua da.

**es** goethita  
**fr** goethite  
**en** goethite

90

**hematite (4)**

Sin. oligisto (3) Burdina(III) oxidoa ( $Fe_2O_3$ ), sistema trigonalean kristaldua. Kolore grisa edo gorria izan dezake, tonu aldakorrekien. Distira metalikoa du, eta opakua da. Marra eta hautsa arre-gorrixkak dituenez, erraz bereiz daiteke antzeko beste mineraletatik. Kantitate txikitana arrunta da arroka igneo askotan, ukitze-metamorfismoan eta temperatura altuko zain hidrotermaletan, besteak beste. Akabera emateko produktuetan eta margo-pigmentuetan ere erabiltzen da. Ez du klibajerik, eta apurketa konkoidea du. Burdin mea garrantzitsuena da.

**es** hematites; oligisto  
**fr** hématite; oligiste  
**en** hematite; haematite; oligiste

91

**hidroxido (4)**

Metalak hidroxiloekin ( $OH^-$  taldekin) konbinatuz sortzen den mineralen multzoa. Oxidoek baino gogortasun eta dentsitate txikiagoak izan ohi dituzte, eta erraz sortzen dira beste mineral batzuk uraren eraginpean geratzen direnean. Meteorizazio-alderdietan agertzen dira, mineral primarioak alteratuak dauden alderdietan hain zuzen.

**es** hidróxido  
**fr** hydroxyde  
**en** hydroxide

92

**ilmenita (4)****es** ilmenita  
**fr** ilménite  
**en** ilmenite



93

**kasiterita (4)**

Eztainu dioxidoa ( $\text{SnO}_2$ ), kristal tetragonalak osatzen dituena. Sarri, maklak osatzu agertzen da. Kolore marroia edo beltza izaten du, eta, oso gutxitan, horixka. Distira metalikoa eta diamantekara artekoa du, zeharreria da, pisu espezifiko handia du, eta, batzuetan, harribitxi gisa erabiltzen da. Kantitate txikitan agertzen da, oso arraroa da kontzentrazio handitan aurkitzea. Konplexu granitikoekin erlazionaturako zainetan agertu ohi da, gehienetan wolframita, scheelita, molibdenita, artsenopirita, turmalina edo topazioarekin batera. Plazer-hobietan ere agertzen da. Eztainu-mea nagusia da.

**es** casiterita**fr** cassitérite**en** cassiterite

94

**koltan (4)**

Sin. kolunbita-tantalita (4) Kolunbita  $[(\text{Fe}, \text{Mn})\text{Nb}_2\text{O}_6]$  eta tantalita  $[(\text{Fe}, \text{Mn})\text{Ta}_2\text{O}_6]$  mineralen soluzio solidoa. Naturan oso urria da, eta arroka igneo alkalinoekin erlazionatuta agertzen da; besteak beste, pegmatitetan. Plazer-hobietan ere ager daiteke. Kolunbitaren eta tantalitaren propietate berezien ondorioz (supereroankortasuna, adibidez), koltana oso estimatua da teknologia berrien esparruan.

**es** coltán; columbita-tantalita**fr** coltan; columbite-tantalite**en** coltan; columbite-tantalite

95

**kolunbita (4)**

Sin. niobita (4)  
**es** columbita; niobita  
**fr** columbite; niobite  
**en** columbite; niobite

**kolunbita-tantalita**

Ik. koltan

96

**korindoi (4)**

Aluminio oxidoa ( $\text{Al}_2\text{O}_3$ ), sistema trigonalean kristaldua. Oso mineral gogorra da ( $H = 9$ , mineral gogorrena da diamantearen ondoren), distira diamantekara du, zenbait koloretakoa izan daiteke (kolorgea, berdea, horia, morea, gorria edo urdina) eta habitu tabularra edo prismatikoa izaten du, sei aldeko prismak osatuz. Aldaera batzuek asterismoa izaten dute. Silizio-eduki txikia duten arroka igneoetan (sienitetan eta haietan batera agertzen diren pegmatitetan) agertzen da, peridotiten eta arroka ostalarien arteko kontaktuan, arroka metamorfikoetan eta plazer-hobietan. Korindoi purua ere urratzaile gisa erabiltzen da. Haren aldaera preziatuena errubia (gorria) eta zafiroa (urdina) dira; asko erabiltzen dira harribitxi gisa, eta zaila izaten da sintetikoki sortutakoak eta naturalak bereiztea.

**es** corindón**fr** corindon**en** corundum

97

**krisoberilo (4)**

**es** crisoberilo  
**fr** chrysobéryl  
**en** chrysoberyl

98

**kromita (4)**

Sistema kubikoan kristaltzen den espinelen taldeko oxidoa ( $\text{FeCr}_2\text{O}_4$ ). Beltza eta opakua da, eta marra arrea eta distira metalikoa ditu. Arroka igneo basiko eta ultrabasikoetako mineral osagarri gisa agertzen da nagusiki, baita plazer-hobietan ere. Kromo-mea bakarra da.

**es** cromita**fr** chromite**en** chromite

99

**kuprita (4)**

Sistema kubikoan kristaltzen den kobre oxidoa ( $\text{Cu}_2\text{O}$ ). Kolore gorri bizia du, eta distira submetalikoa eta diamantekara artekoa. Askotan kobre natiboarekin, malakita, azurita eta limonitarekin batera agertzen da kobredun mineral-hobien oxidazio-eremuan. Kobre-mea da.

**es** cuprita**fr** cuprite**en** cuprite

100

**limonita (4)**

**es** limonita  
**fr** limonite  
**en** limonite

101

**magnetita (4)**

Espinelen taldeko burdin oxidoa ( $\text{Fe}_3\text{O}_4$ ), sistema kubikoan kristaldua. Beltza eta opakua da, eta aurpegi ildaskatuak ditu. Distira metalikoa du, eta dentsitate handia. Oso magnetikoa da (beraz, iman batek erakartzen du), eta, batzuetan, polaritate magnetikoa izaten du (kasu horietan iman gisa funtzionatzen du). Burdina-eduki handiena duen minerala da, eta oxido ugarienen artean dago. Arroka igneo askotan banatuta dago mineral osagarri gisa, eta, zenbaitetan, kontzentratuta agertzen da segregazio magmatikoko arroketan eta arroka metamorfiko eta sedimentario askotan. Kareharri metasomatikoetan ere ageri da (sulfuroekin eta Ca eta Fe silikatoekin batera), baita temperatura altuko zainetan, esmeril-metakinetan (korindoiarekin batera) edo plazer-hobietan kontzentratuta ere. Burdin mea garrantzitsua da.

**es** magnetita**fr** magnétite**en** magnetite**niobia**

Ik. kolunbita

**oligisto**

Ik. hematite



102

**óxido (4)**

Metal bat edo gehiago oxigenoarekin konbinatuak dituzten mineralen taldea. Oxigeno-atomo handien arteko tarteetan metalak kokatzen dira, eta lotura ionikoa eta sendoa izaten da. Ondorioz, óxidoak mineral gogor eta trinkoak izaten dira. Airearekin kontaktuan dauden mineral-hobien azaleko alderdietan sortu ohi dira, oxidazio-prozesuen ondorioz. Arroka igneo eta metamorfikoetan agertzen dira mineral osagarriz, eta arroka sedimentarioetan ere agertu ohi dira.

**es** óxido  
**fr** oxyde  
**en** oxide

103

peblenda (4)  
**es** pechblenda  
**fr** pechblende  
**en** pitchblende

104

pirolusita (4)  
**es** pirolusita  
**fr** pyrolusite  
**en** pyrolusite

105

**tantalita (4)**

**es** tantalita  
**fr** tantalite  
**en** tantalite

106

**uraninita (4)**

**es** uraninita  
**fr** uraninite  
**en** uraninite

107

**wad (4)**

**es** wad  
**fr** wad  
**en** wad

108

**zafiro (4)**

**es** zafiro  
**fr** saphir  
**en** sapphire

## 2.5. Karbonatoak eta nitratoak

109

**ankerita (4)**

**es** ankerita  
**fr** ankérite  
**en** ankerite

110

**aragonito (4)**

Kaltzio karbonatoa ( $\text{CaCO}_3$ ), sistema ortorrubikoa kristaldua, kaltzitaren polimorfoa. Presio handitan egonkorra da, baina era metaegonkorrean ager daiteke presio txikitan edo Lurraren azalean (bertan kaltzita bilakatzen da). Kolorgea, zuria, grisa, horixka, urdinxa, berdexka edo gorrixka izan daiteke. Distira beirakara izaten du, eta gardena edo zeharreria izan daiteke. Askotan kaltzitak ordeztauta egoten da, eta iturri termaletan, estalaktitetan eta buztinetan agertu ohi da, besteak beste. Molusku-oskol batzuk aragonitoak osatuta daude, eta beste batzuk kaltzitak osatuta.

**es** aragonito  
**fr** aragonite  
**en** aragonite

111

**azurita (4)**

**es** azurita  
**fr** azurite  
**en** azurite

112

**dolomita (4)**

Kaltzio eta magnesio karbonatoa [ $\text{CaMg}(\text{CO}_3)_2$ ], sistema trigonalean kristaldua. Zuria, grisa, berdexka, arrea edo arrosa kolorekoa izan daiteke, eta distira beirakara du. Gardena edo zeharreria izan daiteke. Maklak sortu ohi ditu. Ankeritaren isomorfoa da, eta bai ikuspegiz kimikotik, bai egiturari dagokionez, esan daiteke kaltzio-kantitatearen erdia magnesioak ordeztaua duen kaltzita dela. Lurrazaleko karbonatorik arruntena da kaltzitaren ondoren, eta dolomia arrokaren osagai nagusia da. Zain hidrotermalaren ere ageri da, askotan barita, fluorita eta berun eta zink mineralekin batera. Eraikuntzan eta zementu bereziak ekoizteko erabiltzen da.

**es** dolomita  
**fr** dolomite  
**en** dolomite

113

**errodokrosita (4)**

**es** rodocrosita; dialogita  
**fr** rhodochrosite; dialogite  
**en** rhodochrosite; dialogite



## MINERALAK

114

### estrontzianita (4)

Sistema ortorrónbikoan kristaltzen den estrontzio karbonatoa ( $\text{SrCO}_3$ ). Kolore zuria, grisa, horia edo berdea izan dezake, eta distira beirakara du. Prisma-formako edo orratz-formako kristal luzeak izaten ditu, eta agregatuak trinkoak, erradialak edo zuntsuak izaten dira. Maklak agertzea ohiko da. Kareharri eta marmoletan ageri da temperatura baxuko zain hidrotermaletan, askotan barita, kaltzita eta zelestitarekin batera, eta zenbaitetan sulfuroekin batera. Estrontzio-mea da, zelestita bezala.

**es** estroncianita  
**fr** strontianite  
**en** strontianite

115

### kaltzita (4)

Kaltzio karbonatoa ( $\text{CaCO}_3$ ), sistema trigonalean kristaldua, aragonitoaren polimorfoa. Hainbat formatako kristalak osa ditzake, eta maklak sortzen ditu. Normalean kolorea edo zuria izaten den arren, kolore asko har ditzake ordezpenen eta ezpurutasunen ondorioz. Distira beirakara du, gardena edo zeharrargia izan daiteke eta oso birrefringentzia altua du. Oso ugaria da naturan, eta mineral arroka-sortzaile garrantzitsua da arroka sedimentarioetan eta arroka metamorfiko deribatuetan. Itsasoko zenbait izaki bividunen maskor eta eskeletoetan ageri da. Mineral primario gisa ageri da zenbait arroka igneoan, eta ohiko da zain hidrotermaletan. Kareharrietatik eta kaltzitan aberatsak diren beste arroketatik lortutako kaltzita zementua, morteroa, eraikuntzarako harriak eta

abar ekoizteko erabiltzen da, eta, beraz, lehengai nagusietako bat da.

**es** calcita  
**fr** calcite  
**en** calcite

116

### karbonato (4)

Karbonato talde anionikoak ( $\text{CO}_3^{2-}$ ) eta katioi batek edo gutxi batzuek osatutako mineralen klasea. Mineral horiek gogortasun txikikoak izaten dira. Zuriak dira gehienetan, baina, zenbaitetan, kolore biziak izaten dituzte. Batzueta, gardenak edo zeharrargiak izaten dira. Karbonatoak, eta bereziki kaltzita eta dolomita, mineral garrantzitsuak dira kareharrietan eta arroka metamorfikoetan, hala nola marmolean. Halaber, ohikoak dira zain hidrotermaletan.

**es** carbonato  
**fr** carbonate  
**en** carbonate

117

### magnesita (4)

**es** magnesita  
**fr** magnésite  
**en** magnesite

118

### malakita (4)

**es** malaquita  
**fr** malachite  
**en** malachite

### nitratina

Ik. nitratita

119

### nitratita (4)

Sin. nitratina (3)  
**es** nitratina  
**fr** nitronatrite  
**en** nitratite; nitratine

120

### nitrato (4)

Nitrato talde anionikoak ( $\text{NO}_3^-$ ) eta katioi batek osatutako mineralen taldea. Karbonatoen antzeko kristal-egitura dute, baina nitrogenoaren eta oxigenoaren arteko lotura karbonoaren eta oxigenoaren arteko baino sendoagoa da. Nitratoak, uretan oso erraz disolbatzen direnez, oso ingurune lehorretan bakarrik aurkitzen dira mineral gisa. Naturan urriak dira talde honetako mineralak.

**es** nitrato  
**fr** nitrate  
**en** nitrate

121

### nitro (4)

**es** nitro  
**fr** nitre  
**en** nitre; niter

122

### siderita (4)

**es** siderita  
**fr** sidérite  
**en** siderite

123

### smithsonita (4)

Zink karbonatoa ( $\text{ZnCO}_3$ ), sistema trigonalean kristaldua, kaltzitaren eta sideritaren isomorfoa. Giltzurrun-, estalaktita- edo zarakar-formako agregatuak sortzen ditu. Purua denean kolorea izan ohi da; hala ere, kristal-sareko zinka manganesoak, burdinak, kaltzioak edo magnesioak ordezten dutenean, kolore horia, grisa, berdea, urdina edo laranja har dezake. Zink-metakinetako oxidazio-eremuko mineral supergenikoa da, eta esfaleritaren alterazio-produktua izaten da askotan. Zink-mea garrantzitsua da.  
**es** smithsonita  
**fr** smithsonite  
**en** smithsonite

124

### witherita (4)

**es** witherita  
**fr** withérite  
**en** witherite

125

### zerusita (4)

Berun karbonatoa ( $\text{PbCO}_3$ ), sistema ortorrónbikoan kristaldua. Kolorea, zuria edo grisa da, distira diamantekara du, eta gardena edo zeharrargia izan daiteke. Kristalek hainbat motatako habitua izan dezakete, eta maklak osatu ohi dituzte. Ugaria da mea-hobien oxidazio-eremuko mineral sekundario gisa (batez ere berun, zink edo kobre-meen kasuan). Galena, esfalerita eta antzeko mineral primarioekin batera agertu ohi da, baita anglesita, piromorfita, smithsonita eta antzeko mineral sekundarioekin ere. Berun-mea garrantzitsua da.

**es** cerusita  
**fr** cérousite  
**en** cerussite



## 2.6. Boratoak

126

**borato (4)**

Metalak eta  $(BO_3)^{3-}$  taldeak konbinatuz sortutako mineralen klasea.  $(BO_3)^{3-}$  taldeak sortzen dituen talde estrukturalak  $(SiO_4)^{4-}$  taldeak silikatoetan sortzen dituenen antzeakoak dira. Boratoak aintzira gaziak lurruntzen direnean sortzen dira nagusiki.

**es** borato

**fr** borate

**en** borate

127

**borax (4)**

Sodio boratoa  $[Na_2B_4O_5(OH)_4 \cdot 8H_2O]$ , sistema monoklinikoan kristaldua. Kolorgea da, eta, deshidratatzen denean, kolore zuria, grisa edo horixka hartzen du. Distira beirakara edo matea izan dezake, eta zeharrargia edo opakua izan daiteke. Aintzira gazi lehortuetan dago, halita, igeltsu eta hainbat borato-motarekin batera. Boro-mea garrantzitsuenetako bat da. Sendagaia, xaboiak eta detergenteak, beira bereziak, esmalteak eta abar ekoizteko erabiltzen da.

**es** bórax

**fr** borax

**en** borax

## 2.7. Sulfatoak

128

**anglesita (4)**

Berun sulfatoa ( $PbSO_4$ ), sistema ortorrubikoa kristaldua. Kolorgea, zuria, grisa, gorria edo berdexka izan daiteke, eta, barnean alteratu gabeko galena badu, kolore beltza har dezake. Distira erretxinatsua du, eta gardena edo opakua izan daiteke. Pisu espezifiko handia du. Galena-hobien oxidazio-alderdian sortzen da askotan, zerusita eta igeltsuarekin batera orokorrean, eta, zenbaitetan, sumendien sublimazio-produktu gisa sortzen da. Gaur egun, berun-mea gisa erabiltzen da etekina ateratzeko moduko kantitateetan agertzen bada.

**es** anglesita

**fr** anglésite

**en** anglesite

129

**anhidrita (4)**

**es** anhidrita

**fr** anhydrite

**en** anhydrite

130

**barita (4)**

Sin. baritina (3) Bario sulfatoa ( $BaSO_4$ ), sistema ortorrubikoa kristaldua. Kolorgea, zuria, berdea, urdin argia, horixka edo arre gorrixa izan daiteke. Gardena edo zeharrargia izaten da. Bariozko mineral ohikoena da. Zain hidrotermal batzueta mineral nagusia da, eta fluorita, kaltzita, kuartzoa, galena eta beste hainbat mineralarekin batera agertzen da. Halaber, kareharrietan kaltzitarekin batera agertu ohi da,

zainetan eta barrunbeetan hutsuneak betez. Gogortasun txikia du, eta, pisu espezifiko oso handikoa denez, erraz bereizten da kaltzita, fluorita eta kuartzotik. Bario-mea izateaz gain, aplikazio garrantzitsuak ditu, besteak beste: petrolio eta gasa ateratzeko zulaketetan loli gisa erabiltzen da, zoladurak egiteko eta abar.

**es** barita; baritina

**fr** barytine; barite

**en** barite

**baritina**

Ik. barita

131

**igeltsu (4)**

Sistema monoklinikoan kristaltzen den kaltzio sulfato hidratatua,  $(CaSO_4 \cdot 2H_2O)$ . Kolorgea, zuria, grisa, horixka edo arrea izan ohi da. Distira beirakara izaten du, nakaratura klibaje-gainazaletan; zuntsua bada, berriz, distira zetakara izaten du. Gardena edo zeharrargia izan daiteke. Oso gogortasun txikia du. Maklak osatu ohi ditu, gezi-puntaren edo enara-buztanaren itxurakoak askotan. Sulfatorik arruntena da, eta arroka sedimentarioetan agertzen da batez ere, askotan kareharrien, buztinen, halitaren eta bestelako gatzetan geruzekin batera agertzen diren formazio zabaletan. Geruza horiek itsasoko ura lurruntzen denean sortzen dira, eta igeltsua ebaporiten osagai nagusia izaten da. Asko erabiltzen da eraikuntzan, baita ongarriak, zementuak, pigmentuak, esmalteak, portzelana eta igeltsuzko plakak ekoizteko ere.

**es** yeso

**fr** gypse

**en** gypsum

132

**scheelita (4)**

**es** scheelita

**fr** scheelite

**en** scheelite

133

**sulfato (4)**

$(SO_4)^{2-}$ -talde anionikoak eta katioi batek edo gehiagok osatutako mineralen klasea.  $(SO_4)^{2-}$ -taldeak tetraedroak osatzen ditu, eta, silikatoetan ez bezala, tetraedro horiek ez zaizkie elkarri lotzen.

Sulfato gehienak hobietako oxidazio-alderdian gertatzen den oxidazioaren ondorioz sortzen dira, edo itsasoko ura zein aintzira gazietako ura lurruntzen denean.

**es** sulfato

**fr** sulfate

**en** sulfate; sulphate

134

**wulfenita (4)**

**es** wulfenita

**fr** wulfénite

**en** wulfenite

**zelestina**

Ik. celestita

135

**zelestita (4)**

Sin. celestina (3)

**es** celestita; celestina

**fr** célestine; célestite

**en** celestine; celestite



## 2.8. Fosfatoak

136

**apatito (4)**

Kaltzio fosfatoa  $[Ca_5(PO_4)_3(F,Cl,OH)]$ , sistema hexagonalean kristaldua. Kolorgea, horixka, grisaxka, berde urdinxa edo arrea izan daiteke. Distira beirakara koipetsua du, eta gardena edo zeharreria izaten da. Apatitoak hiru mineral-espezie hartzen ditu barnean: fluoroapatitoa  $[Ca_5(PO_4)_3F]$ , ohikoena; hidroxilapatitoa  $[Ca_5(PO_4)_3(OH)]$ , eta klorapatitoa  $[Ca_5(PO_4)_3Cl]$ . Apatitoa fosforik garrantzitsuena da, oso ohikoak mota guztietako arroketako mineral osagarri gisa; pegmatita eta zainetan ere ageri da. Hezurretako eta hortzetako mineral fosfatodunak apatitoaren taldekoak dira. Apatito gehienetan ongarriak ekoizteko erabiltzen da, fosforita bezala. Gainera, azido fosforikoaren lehengai nagusia da, eta pospoloa ekoizteko ere erabiltzen da, besteak beste.

**es** apatito  
**fr** apatite  
**en** apatite

137

**autunita (4)**

**es** autunita  
**fr** autunite  
**en** autunite

138

**fosfato (4)**

$(PO_4)^{3-}$  talde anionikoak eta katioi batek edo gehiagok osatutako mineralen klasea.  $(PO_4)^{3-}$  taldeek normalean kristal-egituraren isolatuta egoten diren tetraedroak osatzen dituzte, ez baitzaizkie batzuk besteei lotzen. Artseniatoen eta banadatoek antzeko egiturak dituzte,  $(AsO_4)^{3-}$  eta  $(VO_4)^{3-}$  talde anionikoek osatua hurrenez hurren, eta fosfatoen, artseniatoen eta banadatoen P, As eta V atomoek elkar ordeztu ohi dute mineral hauetan. Fosfato batzuk arroka igneo eta pegmatitetako mineral primarioak dira, eta beste batzuk gainazaletik gertu eraldaketa-prozesuen bidez sortzen diren mineral sekundarioak.

**es** fosfato  
**fr** phosphate  
**en** phosphate

139

**monazita (4)**

Zerio, lantano, neodimio, torio eta itrio fosfatoa  $[(Ce,La,Nd,Th,Y)PO_4]$ , sistema monoklinikoan kristaldua. Zerio, lantano, eta neomidio lur arraroen arteko proportzioak aldakorrak dira; horietako edozein izan daiteke ugariena, baina zerioa izaten da gehienetan. Torioa ia beti egoten da, % 10-15eko proportzioa, eta horregatik izaten da erradioaktiboa monazita. Kolore horia edo arre gorrixka izan dezake, distira erretxinatsua du eta zeharreria da. Aurpegia irregularak eta ildaskatuak izaten ditu askotan, eta ohikoa da makletan agertzea. Granitoen eta haietan batera ageri diren sieniten eta pegmatiten mineral

osagarria da. Plazer-hobietan ere agertzen da, magnetita, ilmenita, zirkonia eta antzeko beste mineral astunekin batera.

**es** monacita  
**fr** monazite  
**en** monazite

140

**piromorfita (4)**

**es** piromorfita  
**fr** pyromorphite  
**en** pyromorphite

141

**turkesa (4)**

**es** turquesa  
**fr** turquoise  
**en** turquoise

142

**xenotima (4)**

**es** xenotima  
**fr** xénotime  
**en** xenotime

## 2.9. Silikatoak

143

**aegirina (4)**

Sin. egirina (4)  
**es** egririna; aegirina  
**fr** aegiryne; aegirine  
**en** aegirine

144

**agata (4)**

**es** ágata  
**fr** agate  
**en** agate

145

**aktinolita (4)**

**es** actinolita  
**fr** actinolite  
**en** actinolite

146

**albita (4)**

**es** albita  
**fr** albite  
**en** albite

147

**allanita (4)**

**es** allanita  
**fr** allanite  
**en** allanite

148

**aluminosilikato (4)**

Formula orokorra  $Al_2SiO_5$  duen nesesilikatoen azpitaldea. Andaluzita, sillimanita eta zianita polimorfoek osatzen dute. Hiru mineral horiek ohikoak dira aluminiotan aberatsak diren arroka metamorfikoetan, eta erabilgarriak izaten dira prozesu geologikoak interpretatzeko garaian.  
**es** aluminosilicato  
**fr** aluminosilicate  
**en** aluminosilicate; aluminum silicate

149

**ametista (4)**

**es** amatista  
**fr** améthyste  
**en** amethyst

150

**andaluzita (4)**

**es** andalucita  
**fr** andalousite  
**en** andalusite



151

**anfibol (4)**

Inosilikatoen azpitaldeko mineralen talde konplexua; sistema monoklinikoan edo ortorronbikoan kristalduak. Anfibolen formula orokorra hau da:  $WX_2Y_5Si_8O_{22}(OH)^2$  (W:  $Na^+/K^+$ /ez; X:  $Ca^{2+}/Na^+/Mg^{2+}/Fe^{2+}/Mn^{2+}/Li^+$ ; eta Y:  $Mg^{2+}/Fe^{2+}/Mn^{2+}/Fe^{3+}/Al^{3+}/Ti^{4+}$  izanik). Kristal-egituraren eta propietate fisiko eta kimikoien aldetik, anfibolak eta piroxenoak oso antzekoak dira, baina anfibolen konposizio kimikoa eta egitura askoz konplexuagoa da. Anfiboletan,  $(SiO_4)^{4-}$  tetraedroek kate bikoitzak osatzen dituzte; formula orokorrean Si:O erlazioa 4:11 da, eta  $Al^{3+}$  katioiak  $Si^{4+}$  katioia piroxenoetan baino hein handiagoan ordezten du. Arroka metamorfiko eta igneoetan garrantzitsuak diren mineralen serieak daude anfibolen artean.

**es** anfibol  
**fr** amphibole  
**en** amphibole

152

**anortita (4)**

**es** anortita  
**fr** anorthite  
**en** anorthite

153

**augita (4)**

**es** augita  
**fr** augite  
**en** augite

154

**berilo (4)**

Ziklosilikatoen azpitaldeko minerala ( $Be_3Al_2Si_6O_{18}$ ), sistema hexagonalean kristaldua. Kristalak prisma-formakoak izaten dira, batzuetan oso handiak, eta zutabe-formako agregatuetan ere agertu ohi dira. Batzuetan, gainazal ildaskatuak izaten dituzte. Beriloak kolore berdea edo urdin argia izaten du orokorrean, eta, zenbaitetan, kolorea, horia, berde iluna, arrosa edo gorria izaten da.  $Cr^{3+}$ -aren,  $Mn^{2+}$ -aren eta beste trantsizio-metal batzuen kantitate txikiak hainbat kolorazio sorrazak ditzakete; adibidez, esmeraldaren kolore berdea  $Cr^{3+}$ -ari zor zaio. Beriloak distira beirakara du, eta gardena edo zeharreria izaten da.  $(SiO_4)^{4-}$  tetraedroak seiko taldetan elkartzen dira eratzunak osatuz.  $(BeO_4)^{6-}$  tetraedroek eta  $(AlO_6)^{9-}$  oktaedroek eratzun horiek elkarrekin lotzen dituzte, eta, hala, eratzunek kanal luzeak sortzen dituzte bata bestearen gainean jarri. Ohikoa da granito eta pegmatita granitikoetan, eta mikaeskisto eta kareharri bituminosoen zain eta barrunbeetan ere agertzen da. Beriloaren aldaera batzuk harribitxi garrantzitsuak dira, eta esmeralda da aldaera preziatuena.

**es** berilo  
**fr** beryl  
**en** beryl

155

**biotita (4)**

**es** biotita  
**fr** biotite  
**en** biotite

156

**buztin-mineralak (4)**

**es** minerales de la arcilla  
**fr** minéraux argileux  
**en** clay minerals

157

**chert (4)**

**es** chert  
**fr** chaille  
**en** chert

158

**clintonita (4)**

**es** clintonita  
**fr** clintonite  
**en** clintonite

159

**cordierita (4)**

**es** cordierita  
**fr** cordiérite; dichroïte; iolite  
**en** cordierite; dichroite; iolite

160

**cummingtonita (4)**

**es** cummingtonita  
**fr** cummingtonite  
**en** cummingtonite

161

**diopsido (4)**

**es** diópsido  
**fr** diopside  
**en** diopside

**distena**

Ik. zianita

**egirina**

Ik. aegirina

162

**enstatita (4)**

**es** enstatita  
**fr** enstatite  
**en** enstatite

163

**epidota (4)**

**es** epidota  
**fr** epidote  
**en** epidote

164

**errodonita (4)**

**es** rodonita  
**fr** rhodonite  
**en** rhodonite

**esfena**

Ik. titanita

165

**eskapolita (4)**

**es** escapolita  
**fr** scapolite  
**en** scapolite

166

**esmektita (4)**

**es** esmectita  
**fr** smectite  
**en** smectite

167

**esmeralda (4)**

**es** esmeralda  
**fr** émeraude  
**en** emerald

168

**espodumena (4)**

Piroxenoen taldeko aluminio eta litio inosilikatoa ( $LiAlSi_2O_6$ ), sistema monoklinikoan kristaldua. Kristal prismatikoetan agertu ohi da. Kristalak oso tamaina handia eta zenbait tona izatera ildaskatuta egoten dira. Kolore zuria edo grisa izaten dute, eta, zenbaitetan, arrosa, berdea edo horia. Distira beirakara dute, eta gardenak edo zeharrak izaten dira. Litiotan aberatsak diren pegmatita granitikoetan agertzen da. Hiddenita aldaera berdea eta kunzita aldaera lila edo arrosa harribitxi preziatuak dira; gainera, espodumena litio-mea garrantzitsua da.  
**es** espodumena  
**fr** spodumène  
**en** spodumene



## MINERALAK

169

### **estaurolita (4)**

**es** estaurolita  
**fr** staurolite; staurotide  
**en** staurolite; garnatite

170

### **estilpnوملana (4)**

**es** estilpnوملana  
**fr** stilpnوملane  
**en** stilpnومelane

171

### **fayalita (4)**

**es** fayalita  
**fr** fayalite  
**en** fayalite

172

### **feldespato (4)**

Potasio, sodio, kaltzio eta bario teklosilikatoen azpitaldea; sistema monoklinikoan edo triklinikoan kristaltzen dira teklosilikato horiek. Lurrazaleko mineral ugarienak hartzentitu barnean. Arroka igneo eta metamorfiko gehienetako mineral nagusiak dira, eta sedimentuetan ere ugariak dira. Bi azpitaldetan banatzen dira: feldespato alkalinoak ( $KAlSi_3O_8$  -  $NaAlSi_3O_8$ ) eta feldespato kaltzikosodikoak (plagioklasak).

Azken horiek albitaren ( $NaAlSi_3O_8$ ) eta anortitaren ( $CaAl_2Si_2O_8$ ) arteko soluzio solidoen segida osatzen dute. Bario feldespatoak ere badaude, baina arraroagoak dira. Feldespatoen funtsezko egitura hiru dimentsiotan ezarritako  $[(Si,Al)O_4]$  tetraedroek osatzen dute, eta tetraedro horien arteko hutsuneetan kokatzen dira potasio, sodio, kaltzio edo bario atomoak. Feldespato potasikoak monoklinikoak edo pseudomonoklinikoak izaten dira, eta plagioklasak, triklinikoak. Feldespatoek perpendikular kokatzen

diren bi klibaje-norabide eta gogortasun ertaina izaten dituzte ( $H = 6 - 6,5$ ).

**es** feldespato  
**fr** feldspath  
**en** feldspar; felspar

173

### **feldespatoide (4)**

Teklosilikatoen azpitaldea, sodio, potasio, kaltzio eta litio aluminosilikatoak barnean hartzentituena. Feldespatoen antza dute konposizio kimikoari dagokionez, baina feldespatoek baino silizio-eduki eta dentsitate txikiagoak izaten dituzte. Feldespatoak ordezten dituzte magmak alkali ugari eta silizio gutxiegi dituenean. Nefelina, leuzita, sodalita eta kankrinita mineralak feldespatoideak dira.

**es** feldespatoide  
**fr** feldspathoïde  
**en** feldspathoid

174

### **ferroaktinolita (4)**

**es** ferroactinolita  
**fr** ferroactinolite  
**en** ferro-actinolite

175

### **filosilikato (4)**

$(SiO_4)^{4-}$  talde tetraedrikoak hiru erpin partekatuz eta xafla infinituak osatuz ezarriak dituzten silikatoen taldea. Kristal tabular edo xafla-formakoak osatzen dituzte. Klibajea da haien propietate nagusia, gehienetan basal perfektua izaten dena, geruzen arteko lotura ahula izaten baita. Gogortasun txikia izaten dute.

**es** filosilicato  
**fr** phyllosilicate  
**en** phyllosilicate

176

### **forsterita (4)**

**es** forsterita  
**fr** forstérite  
**en** forsterite

177

### **gedrita (4)**

**es** gedrita  
**fr** gédrite  
**en** gedrite

178

### **glaukofana (4)**

**es** glaucofana  
**fr** glaucophane  
**en** glaucophane

179

### **glaukonita (4)**

**es** glauconita  
**fr** glauconite  
**en** glauconite

180

### **granate (4)**

**es** granate  
**fr** grenat  
**en** garnet

181

### **grunerita (4)**

**es** grunerita  
**fr** grunerite  
**en** grunerite

182

### **hedenbergita (4)**

**es** hedenbergita  
**fr** hédenbergite  
**en** hedenbergite

183

### **hemimorfita (4)**

**es** hemimorfita  
**fr** hémimorphite  
**en** hemimorphite

184

### **hiddenita (4)**

**es** hiddenita  
**fr** hiddénite  
**en** hiddenite

185

### **hiperstena (4)**

**es** hiperstena  
**fr** hypersthène  
**en** hypersthene

186

### **hornblenda (4)**

**es** hornblenda  
**fr** hornblende  
**en** hornblende

### **idokrasa**

Ik. vesubianita

187

### **illita (4)**

**es** illita  
**fr** illite  
**en** illite

188

### **inosilikato (4)**

$(SiO_4)^{4-}$  tetraedroak kateak osatuz antolatuak dituzten silikatoen azpitaldea. Inosilikatoetan tetraedro horiek bi erpin partekatzen dituztenez,  $Si:O$  erlazioa 1:3 da, ziklosilikatoen kasuan bezala. Anfiboletan kate bikoitza osatzen dira;  $(SiO_4)^{4-}$  tetraedroen erdiak bi erpin partekatzen ditu, beste erdiak hiru, eta bi tetraedromota horiek tarteatu egiten dira. Ondorioz, anfibolen  $Si:O$  erlazioa desberdina da, 4:11 hain zuzen. Inosilikatoek orratz-itxurako kristalak edo kristal prismatikoak sortzen dituzte, eta kateen norabideak eta zabalerak klibaje-mota baldintzatzen dute.

**es** inosilikato  
**fr** inosilicate  
**en** inosilicate



## MINERALAK

189

### jadeita (4)

Sistema monoklinikoan kristaltzen den piroxenoa  $[Na(Al)Si_2O_6]$ . Agregatu trinko edo zuntsuak sortu ohi ditu. Berde argia edo iluna izaten da, distira beirakara du eta zeharreria da.  $Fe^{3+}$  katioiak muga bateraino ordezten du  $Al^{3+}$  katioia. Arroka metamorfikoetan sortzen da, presio altuan era temperatura baxuetan. Jadea jadeita edo nefrita mineralek osatutako materialari deritzo, baina jadeita urriagoa eta askoz preziatuagoa da. Jadea oso preziatua da grabatze-lanak egiteko, eta gizakiak aspaldidianik erabili izan du objektuak ekoizteko.

es jadeita  
fr jadéite  
en jadeite

190

### jaspe (4)

es jaspe  
fr jaspe  
en jasper

191

### kaltzedonia (4)

es calcedonia  
fr calcédoine  
en chalcedony

192

### kankrinita (4)

es cancrinita  
fr cancrinite  
en cancrinite

193

### kaolinita (4)

es caolinita  
fr kaolinite  
en kaolinite

194

### klinozoisita (4)

es clinozoisita  
fr clinzoïsite  
en clinzoisite

195

### klorita (4)

es clorita  
fr chlorite  
en chlorite

196

### kloritoide (4)

es cloritoide  
fr chloritoïde  
en chloritoid

197

### krisotilo (4)

es crisótilo  
fr chrysotile  
en chrysotile

198

### kristobalita (4)

es cristobalita  
fr cristobalite  
en cristobalite

199

### kuartzo (4)

Silizio dioxidozko tektosilikatoa ( $SiO_2$ ), sistema trigonalean kristaldua. Kolorea edo zuria izan daiteke, baina ezpurutasunak baditu edozein kolore har dezake; hala ere, normalean nahiko purua izaten da. Distira beirakara du, eta gardena edo zeharreria izan daiteke. Kristalak ebakidura hexagonaleko prisma bipiramidalak edo bipiramideak izaten dira. Kuartzoa ( $SiO_4$ )<sup>4-</sup> tetraedroek helizeak osatzen dituzte, helize horiek elkarren artean biribilkatzen dira, eta elkarri alboz

lotzen zaizkie. Gogorra da ( $H = 7$ ), ez da klibatzen eta apurketa konkoidea du. Hainbat motatako maklak osa ditzake. Aldera makrokristalinoak eta mikrokristalinoak ditu. Oso ugaria da arroka sedimentario detritikoetan, arroka metamorfiko askotan, baita siliziolan aberatsak diren arroka igneoetan ere. Oso piezoelektrikoa da. Aplikazio ugari ditu; besteak beste, hainbat material ekoizteko erabiltzen da, baita harribitxi gisa eta maiztasunen kontrolerako ere (erlojuetan eta irrati-materialetan, adibidez).

es cuarzo  
fr quartz  
en quartz

200

### kunzita (4)

es kunzita  
fr kunzite  
en kunzite

201

### lawsonita (4)

es lawsonita  
fr lawsonite  
en lawsonite

202

### lepidolita (4)

es lepidolita  
fr lépidolite  
en lepidolite

203

### leuzita (4)

Sistema tetragonalean kristaltzen den feldespatoideen taldeko potasio eta alumino tektosilikatoa,  $(KAlSi_3O_8)$ . Kristalak kubikoak izaten dira 605 °C-tik gora, eta tetragonalak temperatura horretatik behera. Kristalak ez dira klibatzen, gainazalak

ildaskatuak izaten dituzte, eta errepikatze-maklak sortzen dituzte. Leuzitak kolore grisa edo zuri matea izaten du, eta gutxitan izaten da gardena. Distira beirakara izaten du, eta zeharreria da. Sodioaren kantitate txikiak potasioa ordez dezakete.

es leucita  
fr leucite  
en leucite

204

### margarita (4)

es margarita  
fr margarite  
en margarite

205

### mika (4)

es mica  
fr mica  
en mica

206

### mikrokлина (4)

Potasio aluminosilikato triklinikoa ( $KAlSi_3O_8$ ), tektosilikatoen azpitaldekoa. Zuria, hori argia, arrosa, gorrixka eta, batzuetan, berdexka izaten da. Distira beirakara izaten du; nakaratu, klibaje-gainazaletan. Zeharreria izaten da. Sare-makla da haren makla bereizgarria. Mikrokлина astiro eta sakonera handian sortutako arroka igneoetan egoten da: granito eta sienitetan, esaterako. Halaber,gneisetan eta hareharri batzuetan egoten da. Arrunta da zain hidrotermal eta pegmatitetan, eta azken horietatik kantitate handitan erauzten da portzelana, esmaltea eta beira ekoizteko.

es microclina  
fr microcline  
en microcline



## MINERALAK

207

### **muskovita (4)**

Sistema monoklinikoan kristaltzen den filosilikato potasikoa,  $KAl_2(Si_3Al)O_{10}(OH,F)_2$ . Kristal laminarrak sortzen ditu. Kolorea izaten da normalean, nahiz eta, zenbaitetan, tonu hori, berde edo arreak izan ditzakeen. Distira beirakara edo nakaratua izan dezake, eta zeharrargia izaten da. Gogortasun txikia du ( $H = 2,5$ ). Erraz klibatzen da, eta hori gertatzen denean oso xafla fin malgu eta elastikoak askatzen dira. Mineral arroka-sortzaile ohikoa da. Bereziki ugaria izaten da granitoetan eta horiekin batera agertzen diren pegmatitetan, eta arroka metamorfikoetan ere agertzen da. Hainbat aplikazio ditu; bestekar beste, garrantzitsua da industriarako isolatziale termiko eta elektriko gisa.

**es** moscovita  
**fr** muscovite  
**en** muscovite

208

### **nefelina (4)**

**es** nefelina  
**fr** néphéline  
**en** nepheline

209

### **nefrita (4)**

**es** nefrita  
**fr** néphrite  
**en** nephrite

210

### **nesosilikato (4)**

$(SiO_4)^4-$ -tetraedroak elkarri lotu gabe dituzten silikatoen taldea. Tetraedroak katioien bidez mantentzen dira elkartuta, eta mineral hauen formula orokorra  $SiO_4^n$  amaitzen da kasurik simpleenetan.

**es** nesosilicato  
**fr** néosilicate  
**en** nesosilicate

211

### **olibino (4)**

**es** olivino  
**fr** olivine  
**en** olivine

212

### **onfazita (4)**

**es** onfacita  
**fr** omphacite  
**en** omphacite

213

### **opal (4)**

Silizearen taldeko fase orokorki amorfo (mineralaide) hidratatua ( $SiO_2 \cdot nH_2O$ ). Ur-edukua aldakorra izaten da, eta % 20ra artekoa izan daiteke. Kolorea, zuria edo grisa izaten da gehienetan. Tonu horiak, arreak, gorriak, berdeak edo urdinak izaten ditu zenbaitetan. Distira beirakara du, argizari-itxurakoa batzuetan, eta gardena edo zeharrargia izan daiteke. Haustura konkoidea du. Masa konpaktu botroidal, estalaktitiko edo zarakar-formakoetan agertzen da. Hainbat arrokaren pitzaduretan eta barrunbeetan egoten da, baita iturri termal eta geiserretan edo diatomita izeneko metakinetan ere. Opalo noblea harribitxi preziatua da. Diatomita, berriz, isolatzaile eta urratzaile gisa erabiltzen da, baita iragazteko ere.

**es** ópalo  
**fr** opale  
**en** opal

214

### **ortoanfibol (4)**

**es** ortoanfibol  
**fr** orthoamphibole  
**en** orthoamphibole

215

### **ortopiroxeno (4)**

**es** ortopiroxeno  
**fr** orthopyroxène  
**en** orthopyroxene

216

### **ortosa (4)**

Potasio aluminosilikato monoklinikoa ( $KAlSi_3O_8$ ) tektosilitakoan azpitaldeko. Haragi-kolore leunekoa, kolorea, zuria, grisa, horixka edo berdexka izan daiteke. Distira beirakara izaten du, eta zeharrargia izaten da.  $[(Si,Al)O_4]$  tetraedroek hiru dimentsioko egitura osatzen dute, aluminioa etasilizioa partzialki ordenatuta egoten dira posizio tetraedrikoetan, eta  $K^+$  ioiak tartean kokatzen dira. Ortoklasak sartze-maklak sortu ohi ditu. Oso hedatuta dago granitoa, sienita eta antzeko arroka igneoetan, zenbait arroka metamorfikotan eta hareharri batzuetan. Zeramika-industrian erabiltzen da.

**es** ortosa; ortoclase  
**fr** orthose  
**en** orthose; orthoclase

217

### **pektolita (4)**

**es** pectolita  
**fr** pectolite  
**en** pectolite

218

### **pigeonita (4)**

**es** pigeonita  
**fr** pigeonite  
**en** pigeonite

219

### **pirofilita (4)**

**es** pirofilita  
**fr** pyrophyllite  
**en** pyrophyllite

220

### **piroxeno (4)**

Sistema ortorronbikoan edo monoklinikoan kristaltzen diren inosilikatoen azpitaldeko mineralen multzoa, formula orokorra  $XYSi_2O_6$  duena, ( $X: Ca^{2+}/Na^+/Mg^{2+}/Fe^{2+}/Mn^{2+}/Li^+$  izanik, eta  $Y: Mg^{2+}/Fe^{2+}/Mn^{2+}/Fe^{3+}/Al^{3+}/Cr^{3+}/Ti^{4+}$ ). Anfibolek ez bezala OH talderik izaten ez duten arren, ezaugarri komun asko dituzte haietan. Kristal prismatikoen kolorea berde argi eta berde ilun artekoa edo beltza izaten da, baina zenbaitetan zurizkak edo koloreak ere izan daitezke. Arroka magmatiko eta metamorfiko askotan agertzen dira.

**es** piroxeno  
**fr** pyroxène  
**en** pyroxene

221

### **piroxenoide (4)**

**es** piroxenoide  
**fr** pyroxénoïde  
**en** pyroxenoid



222

**plagioklasa (4)**

